

## DESTINOAK ESLEITZEKO FASEA: LANPOSTUAZ JABETZEKO INFORMAZIOA EPE 2011

### DESTINO ESKAINTZA HANDITZEA: PEDIATRIAKO M.E- LMT ETA FAMILIAKO M.E- LMT KATEGORIAK

1.- Destinoa lortu dutenek **hilabete** daukate lanpostuaz jabetzeko, langile estatutario finkoa izateko izendapena jasotzen duen Ebazpena EHAAng argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Aurreikusitako epe horretan esleitutako destinoaz ezin badira jabetu, harremanetan jarri beharko dira behealdeko telefono horretara deituz; horrela, hala badagokio, lanpostuaz jabetzeko epea luzatzeko eskatu ahal izango dute.

2.- Lanpostua jabetzan **Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzan** hartuko da (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), 9:00 eta 13:00 bitartean. **Hitzordua eskatu** beharko da 945006338 telefonora deituz.

3.- Lanpostuaz jabetzeko epean esleipenduna Osakidetzan ari bada lanean, bere zentroko Pertsonaleko Zuzendaritzan jakinarazi beharko du **lanpostua utziko** duela, jabetzerako aurreikusitako egunaren aurretik, aurrerapen nahikoaz, zentro horrekin duen zerbitzu-harremana amaituko bada.

4.- Esleitutako destinoaz jabetzeko, interesdunak **dokumentazio hau** eraman beharko du Osakidetzako Erakunde Zentraleko egoitzara:

- NAN, pasaporte edo gidabaimena.

- OTI edo Gizarte Segurantzako kartilla.

- Medikuz-azterketaren ziurtagiria, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak emana **(\*)2011ko EPEko aurreko fasean aipatutako ziurtagiria aurkeztu dutenek salbu.**

- Zinpeko deklarazioa edo promesa, inolako administrazio publikoko zerbitzutik baztertua ez dagoela-eta. Dokumentu hau Osakidetzako Euskal osasun zerbitzuak eskainiko du.

- Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikoei hala eskatzen denean.

- Adingabearen Babes Juridikorako urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzko ardura-aitorpena, eta Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren Egiaztagiria lortzeko baimena.

5.- Araudian jasotzen diren arrazoietakoa bat dela-eta esleipenduna ez balitz esleitutako destinoan hasiko (eszedentzia bateraezintasunagatik, familia-eszedentzia, amatasun-baja...), lanpostuaz jabetzeko unean horren berri eman eta egiaztatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko luke.